

TRUCHUELO ARGAZKI-FUNTSAREN ERAKUSKETA

“Andoain Truchuelo anaien objektiboa” izenburua duen erakusketa Basteroko Erakusketa Gelan inauguratu egingo da azaroko 23an, ostirala, 19:00tan. Erakusketan Truchuelo anaien kamarek hartutako irudi sorta handi bat ikusiko dugu. Emilio eta Ramón Truchuelo anaiek apirilaren 2017an bere argazki-funtsa doan eman zioten Udalari eta Udal Artxiboa arduratu da negatibo multzotatik zati handi bat antolatzen, hautatzen eta digitalizatzen, eta lan hori egin ondoren, erakusketa prestatu du. Horretarako, Itxaso Mendiluzek komisaria lana egin du. Erakusketaren gaiak zabal eta askotarikoak dira, baina protagonista nagusiak andoaindarrak izango dira. Berrogeita hamar hamarkadatik laurogeita hamar hamarkadaren bukaerako arteko irudiak topatu ahal izango ditugu, denboran Andoain urrun batekoak baina oroimenean oso hurbil dauzkagunak.

Erakusketa honen bitartez Andoaingo herriak euren lana aitortu nahi die argazkilariei eta, bide batez, bere esker ona adierazi.

Erakustaldia azaroaren 23tik abenduaren 29 bitartean zabalik izango da, astelehenetik ostiralera, 18:00tatik 20:00tara; eta larunbatetan, 10:30tatik 13:00tara, eta 18:00tatik 20:30 bitartean.



Andoaingo Udal Artxiboa